

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 373/2020 Erabakia, abuztuaren 4koa. Araban digitalizazioa sustatzeko laguntzen deialdia onartzea, lehia askeko erregimenean (Covid-19-Álava digitaliza) 2020ko ekitaldirako

Arabako Foru Aldundiak berriki aurkeztu du “Plan Á” delakoa, “Araba Arabaren alde mobilizatzea” helburu duten 50 neurri ekonomiko osatutako talka plana. Planaren xedea da Covid-19aren pandemiak Arabako ekoizpen sarean eragin dituen ondorio oso negatiboei aurre egitea. Planak, besteak beste, likidezia neurriak eta ETEak eta autonomoak digitalizatzeko laguntzak jasotzen ditu.

Enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek digitalizazio prozesuak abian jartzeak duen garrantzia, aurretiaz jada agerikoa, are nabarmenagoa da orain, Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz.

Arabako Foru Aldundiak uste du digitalizazioa funtsezko estrategia dela Arabako enpresak garatzen ari diren berrikuntza prozesuetan eta bizkortu egin behar dela egoera berriari erantzuteko. Horregatik, programa berri bat aurkeztu du, eta aurrekontu partida espezifiko batzuk onartu ditu, “Plan Á” delakoan jasotako jardueren jarraipena errazteko. Plan hori digitalizazio jardueri laguntzeko diseinatu da, eta lehia askeko erregimenean itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematea aurreikusten du.

Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (RIS3-Fabrikazio Aurre-ratua-Industria 4.0) barruan sartzen den programa berriak lehiakortasuna hobetzeko jarduerak lagunduko ditu diruz. Jarduera horiek ekoizpen, merkataritza eta salmenta ondoko prozesuen digitalizazioa izan beharko dute oinarri. Horretarako, honako hauek ezarriko dira, besteak beste: zibersegurtasuneko teknologiak, telelana, telelaguntza eta urrutiko monitorizazioa, automatizazioa, elkarlaneko robotika eta robotika malgua, errealitate birtuala eta areagotua, fabrikazio gehigarria, adimen artifiziala, datu masiboak, hodeia eta gauzen Internet.

Diruz lagundu ahal izango dira digitalizazio hori lortzeko jarduerak, hala nola diagnostikoak, estrategia azterlanak eta eraldaketa digitalerako beste ekimen batzuk, ibilgetua eskuratzea, langileei prestakuntza espezifikoa ematea eta digitalizaziorako gaitasunetan kualifikatutako langileak kontratatzea.

Deialdiak laguntzen intentsitate plusa ematen die 2020ko ekitaldi honetan Álava Innova laguntza lerrarako eskabidea aurkeztu duten enpresei, eta, horrela, horiek berrikuntzaren alde egindako apustuari jarraipena ematen dio eta hura sendotzen, kasu honetan digitalizazioaren esparruan.

Laguntzak emateko prozedura lehia askea izango da. Prozedura horren erabileraren justifikazioa deialdi honen jatorria bera da: COVID-19aren pandemiak eta horren ondorioz dekretatu zen alarma egoerak eragindako egoera, zeinak oso modu negatiboan eta inoiz ez bezala eragin baitio jarduera ekonomiko gehienari. Egoera hori arintzeko, beste ekimen askoren artean, laguntza deialdi hau sortu da, zeina eraginkorra izan dadin ezinbestekoa baita jasotzen den eskaera bakoitza azkar ebatzea.

Horretarako, erabaki honen bidez, aginduzko deialdia egiten da Araban digitalizazioa sustatzeko laguntzak emateko (Covid-19-Álava Digitaliza), betiere Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearren publikotasun, lehia, objektibotasun eta berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Araban digitalizazioa sustatzeko laguntzen (Covid-19-Álava Digitaliza) 2020ko ekitaldirako deialdi publikoa, zeina erabaki honi erantsita baitoa.

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: lehia bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu, eta erabaki honen eranskinean ezarritakoek. Laguntzak emateko prozedura lehia askea izango da.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundia-
ren 2020ko indarreko aurrekontu antolamenduko honako partida hauen kontura ordainduko dira: 20.1.20.1.15101.0801.7700012 Plan Á. Covid-19-Álava DIGITALIZA. Dirulaguntzak. EGEF, (360.000,00 euro) eta 2021. urterako konpromiso kredituko 20.3.21.1.15101.0801.7700012 (40.000,00 euro).

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera eranskin moduan doan edukia gehituz.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da zuzenean, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren

Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA**COVID-19-ÁLAVA DIGITALIZA DIRULAGUNTZEN 2020KO EKITALDIRAKO DEIALDIA****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen helburua da Arabako enpresen digitalizazioa sustatzea, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emanez lehia askearen bidez digitalizazio horretan laguntzen duten jarduerak egiten dituztenei, eta, horrela, Arabako ekoizpen sarearen lehiakortasuna hobetzea.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbatekoa

Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontu antolamenduko honako partida hauen kontura ordainduko dira: 20.1.20.1.15101.0801.7700012 Plan Á. Covid-19-Álava DIGITALIZA. Dirulaguntzak. EGEF (360.000,00 euro) eta 2021eko konpromiso kredituko 20.3.21.1.15101.0801.7700012 (40.000,00 euro).

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

a) Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten ETEak, beren osaera juridikoa edozein dela ere, edo gutxienez jarduera zentro bat Arabako Lurralde Historikoan daukatenak. Enpresa sortu edo jarduera hasi zenetik eskaera egiten den egunera arte gutxienez urtebete igaro behar da. Lehenago beste izen edo forma juridiko baten pean jarduera bera egiten bazuten haien hasierako eraketa hartuko da kontuan haien antzintasuna zenbatzeko.

Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat ETE izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauzka, haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada eta haren urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada, dena itxitako azken kontabilitate ekitaldiaren gainean eta urteko oinarrian kalkulatuta.

b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten autonomoak, baldin eta gutxienez urtebete igaro bada laguntzaren xede den jarduerari dagokion JEZeant alta eman zutenetik laguntza eskaera aurkezten duten egunera arte.

3.2. Dirulaguntzen onuradun izateko, legezko gainerako betekizunak betetzeaz gain, erakundeek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai diru laguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai diru laguntza jasotzeko unean.

Erakunde onuradunak ez badu Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.3. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ez eta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikodun erakundeak ere.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

4.1 Diruz lagundu ahal izango dira lehiakortasuna hobetzeko jarduerak. Jarduera horiek ekoizpen, merkataritza eta salmenta ondoko prozesuen digitalizazio izan beharko dute oinarri. Horretarako, honako hauek ezarriko dira, besteak beste: zibersegurtasuneko teknologiak, telelana, telelaguntza eta urrutiko monitorizazioa, automatizazioa, elkarlaneko robotika eta robotika malgua, errealitate birtuala eta areagotua, fabrikazio gehigarria, adimen artifiziala, datu masiboak, hodeia eta gauzen Internet.

Diruz lagundu ahal izango dira digitalizazio hori lortzeko jarduerak, hala nola diagnostikoak, estrategia azterlanak eta eraldaketa digitalerako beste ekimen batzuk, ibilgetua eskuratzea, langileei prestakuntza espezifikoa ematea eta digitalizaziorako gaitasunetan kualifikatutako langileak kontratatzea.

4.2. Diruz lagundu ahal izateko, jarduera horien ondorioz lehiakortasunean espero diren hobekuntzak zehaztu eta arrazoitu beharko dira.

4.3 Baldin eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz erakunde eskatzaileak proposatutako jardueraren batek laguntza deialdi honen helburuari egindako ekarpena nahikoa ez bada, murriztu egin ahal izango da esleitu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

5. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak

5.1 Diruz lagundu ahal izango dira erakunde eskatzaileak aurreko artikuluan aipatutako jardueraren bat kontratatzean izandako kanpo gastuak (ibilgetuak barne), eta behar beste gaitasuna duten hornitzaileek egin beharko dituzte.

5.2. Ibilgetuak eskuratzuz gero, erosketa hori diruz lagundu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Lehendabizikoz erabiltzen edo funtzionatzen hastea.
- Inbertsioa Arabako jarduera ekonomikoko zentro batean kokatzea.
- Gutxienez bost urtez egotea enpresaren aktiboan, fakturaren egunetik aurrera.
- Hirugarrenei alokatu edo laga gabe egotea, ordainarekin edo ordainik gabe.
- Enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak ez izatea.

Ibilgetu materiala leasing bidez eskuratzen bada, interesik, gasturik eta BEZik gabeko kuo-tetarako emango da dirulaguntza.

5.3. Langileen prestakuntzarako kanpo gastuei dagokienez, gehienez ere 5.000,00 euroko kostua izan dezakete, eta diruz lagunduko da aurkeztutako jarduerekin lotura zuzena duen 100 orduetik beherako prestakuntza tekniko espezifikoa.

5.4. Diruz lagundu ahal izango dira egin beharreko digitalizazio jardueretarako langile kualifikatuak kontratatzeke barne gastuak, 6. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

5.5. Arau orokor gisa, gastu hauek ez dira diruz laguntzekoak izango:

- Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean lotura dutenak.
- Telefono adimendunak, tabletak edo egunero erabiltzen diren ekipo informatikoak erostea.
- Legeak edo arauak agintzen dituzten gastuak edo inbertsioak.
- Web orri estandarrak garatzeko eta/edo bilatzaileetan kokatzeko gastuak.
- Materialen erosketa, baita material horiek prototipoen garapenerako beharrezkoak direnean ere.
- Obra, eraikuntza eta instalazio lagungarriekin (elektrizitatea, girotzea, segurtasuna, etab.) lotutako gastuak.
- Ibilgailu alokatuen eta taxien gastuak, kilometro sariak, bidaiak, hotelak, otorduak, telefonoa.
- Gastu errepikakorrak, esaterako, aholkularitzakoak zein software lizentziak, web ostatatze gastuak, zerbitzari gastuak, etab.
- Estatu mailako zein nazioarteko azoketan parte hartzeko edota bertaratzeko gastuak.
- Prestakuntza arautuaren gastuak eta/edo hobaridun ikastaroak.

– Finantzaketa gastuak.

– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta zeharkako beste zerga batzuk, salbu eta aitorpenean BEZa kendu ezin duten erakunde onuradunen kasuan; horrelakoetan, BEZa gastutzat hartu ahalko da.

5.6. Proiektuaren gastu aurrekontua gehiegizkoa dela jotzen bada, antzeko proiektuetako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, gastu doitu eta proportzionatutzat jotzen denera murriztuko da diruz lagun daitekeen zenbatekoa.

5.7. Baimenduta dago dirulaguntza jaso dezaketen kanpoko gastuen ehuneko 100era-ino azpikontratatzeari, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez. Diruz lagundutako jardueren gauzatze osoa edo partziala hitzartu ahal izango du erakunde onuradunak, kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egiten bada eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren alde zuzeneko baimena lortzen bada.

6. artikulua. Langileen kontratazio berrien betekizunak (barne gastuak)

Deialdi honen babesean dirulaguntza jasotzen duten kontratazio berriek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Langile kualifikatuak izatea; alegia, digitalizazioarekin lotutako gaitasun arloekin bat datozen prestakuntza akademikoa eta lanbide kategoria izatea.

– Onuradunak egin beharreko digitalizazio jarduketaren bati lotutako lanak edo gauzatze prozesuan daudenak egitea.

– Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko 1. kotizazio taldekoak izatea. Bestalde, haien lan baldintzek aplikatu beharreko hitzarmenean xedatutakoa bete beharko dute.

– Kontratatzen den pertsonak erakundeko zuzendaritza taldeko inorekin ez izatea odol bidezko nahiz ezkontza bidezko lehenengo edo bigarren mailako ahaidetasunik.

– Lan kontratuak gutxienez sei hilabeteko iraupena izan beharko du, lanaldi osoan, eta 2020an hasi beharko da.

– Kontratazio berria Arabako lantoki batean kokatzea.

7. artikulua. Jarduerak egiteko epea eta aplikazio eremua

7.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte dirulaguntza jasotzen duten jarduketaren emaitzak edo bertan egin beharko dituzte jarduera horiek.

7.2. Dirulaguntza jaso dezakete laguntza eskaera aurkeztu ondorengo egunetik 2021eko martxoaren 31ra bitartean egiten diren jarduketek izandako gastuek.

Salbuespen gisa, eta proiektuaren izaerak eta inguruabarrek hala justifikatzen badute, 2020ko uztailaren 1etik aurrera hasitako jarduketaren kasuan, laguntza eskabidea aurkeztu aurretik sortutako gastuak onartu ahal izango dira, betiere eskabide horiek 2020ko irailaren 30a baino lehen aurkezten badira.

Gastu horiei egotzen zaizkien fakturen datak jarduketak gauzatzeko epearen barruan egon behar du.

8. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

8.1 Emakida prozedura lehia askea denez, zuzen aurkeztutako eskabideak jasotako hurrenkera zorrotzean banatuko dira funtsak, betiere instrukzio organoaren iritziz ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta aurrekontu zuzkidurak horretarako aukera ematen duen bitartean. Dirulaguntza gastu motaren arabera emango da, ehuneko hauen arabera:

- Kanpo gastuak: ehuneko 20.

- Ibilgetuak eskuratzea: ehuneko 10.

- Langileen barne gastuak: Gehienez soldata kostu gordinaren ehuneko 20ko dirulaguntza emango da, erakunde onuradunaren gizarte segurantzaren kostuak barne, betiere langilea diruz lagundutako jarduketan eskusibotasunez aritzen bada. Arduraldia partziala bada, jarduketari eskainitako arduraldiaren neurri proportzionalen kalkulatu da dirulaguntza.

Enpresak edo autonomoak Álava Innova 2020 programarako dirulaguntza eskatu badu, kanpo gastuetarako eta barne gastuetarako dirulaguntzaren ehuneko 30ekoa izango da kasu bakoitzean, Álava Innova deialdian aurkeztutako eskabidean sartu gabeko jarduketarako.

8.2. Kanpoko gastuetarako dirulaguntzaren gehieneko muga 15.000,00 euro da, erakunde onuradun eta deialdi bakoitzeko. Ibilgetua eskuratzeko dirulaguntzaren muga 10.000 euro da.

Barne gastuetan, gehieneko muga 15.000,00 euro da.

Hainbat motatako gastua (barne eta kanpo gastua) duten proiektuetan 20.000 euro da dirulaguntzaren gehieneko muga.

8.3. Jarduketek dirulaguntza jaso ahal izateko, onetsi behar den gutxieneko dirulaguntzaren zenbatekoa 1.500,00 euro da.

9. artikulua. Prozedura izapidetzeko eskumenak dituzten organoak

Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

10.1. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau indarrean sartzen denean, eta 2020ko azaroaren 30an amaituko da, 14:00etan.

Gainera, erakunde onuradunentzako funtsak mugatuak direnez eta dirulaguntzak eskabideak behar bezala beteta eta osorik jaso ahala emango direnez, ezetsi egingo dira funts horiek agortzen direnean aurkeztuta baina ebazteke dauden eskabideak.

10.2. Eskaera horiek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute aldez aurretik. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo Ezagutu Egoitza – Nola sartu izeneko atalera.

10.3. Egingo diren jarduketak jasotzen dituen eskaera bakarra onartuko da erakunde onuradun bakoitzeko.

10.4. Erakunde eskatzaileak AFAREN egoitza elektronikoa dagoen inprimakian eskatzen den informazioa bete behar du, baita informazio hau ere:

a) Erakunde eskatzaileari eta aurkeztutako jarduketa multzoari buruz:

- Enpresaren eta aurkeztutako digitalizazio jarduketaren deskribapen memoria. Aurkeztutako digitalizazio jarduketaren memorian, lortu nahi diren lehiakortasun hobekuntzak zehaztu eta arrazoitu behar dira, eta aurrekontuan sartutako gastu bakoitzaren beharra arrazoitu behar da.

- Gastuen taula xehatua

- Itxitako azken ekitaldian erregistratutako urteko kontuak, eta auditoretza txostena, hala badagokio. Urteko kontuak egitera behartuta ez badago, hori justifikatzen duen kausaren frogagiria.

- BEZaren salbuespena frogatzeko dokumentazioa (erakundea salbuespena baldin badago soilik).

b) Aurkeztutako jarduketa bakoitzari buruz:

- Kanpoko hornitzaileen 10.000,00 eurotik gorako eskaintzen fotokopia.
- Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduketa berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk / beste laguntza batzuen ebazpenak.

10.5 Eskaera jasotzean Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak egiaztatzen badu ez dagoela osorik, dela datuak falta direlako, dela aurreko puntuan deskribatutako agiriaren bat falta delako, aurkitutako akatsak zuzentzen diren eguna hartuko da eskaeraren harrera datatzat.

10.6. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak laguntzaren eskaeran identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei emango die baliozkotasuna erakunde eskatzaileak.

10.7. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiria, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak beharrezko ebazpenak emango ditu. Ebazpen horiek, ahal dela, bide elektronikoko bidez jakinaraziko dira, eta hala ezin bada, gutun ziurtatu bidez, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoarekin.

11.2. Jakinarazitako ebazpenak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da zuzenean, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

12. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Erakunde onuradunak onarpena aurkeztu behar du edo, hala behar denean, uko egitea, egoitza elektronikoa, dirulaguntza ematearen jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun balioduneko epean.

13. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

13.1. Onetsitako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

13.2. Lehenengo ordainketa (emandako dirulaguntzaren ehuneko 30) justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, dirulaguntza emateko ebazpena onetsitakoan eta erakunde onuradunak 12. artikuluan aipatzen den onarpena aurkeztutakoan, eta organo instrukzio egilearen oniritzia jaso beharko du. Ez da ezartzen aurrerakin horretarako emandako funtsen berme araubiderik.

13.3 Bigarren ordainketa (ehuneko 60koa) aurrez egindako aurrerakina justifikatu ondoren ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa; horretarako, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak, egoitza elektronikoa bidez, justifikazio agiri hauek aurkeztea, 2020ko abenduaren 29an amaituko den epean:

- Egindako jarduketa guztien memoria, helburuen lorpen maila, gogobetetze maila, jarduketak egiteko egutegiaren betetze maila eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuen desbideraketak zehaztuz.

– Kanpoko gastuen eta sarreraren eta/edo diruz lagundutako jardueren finantzaketaren koadroa.

– Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.

– Diruz lagundutako digitalizazio jardueri lotutako eta egindako barneko gastuen taula, honako hauek zehaztuta: izena, sexua, NANA, dedikazio orduak, kostua orduko eta kostua guztira, eta, hala badagokio, kontratazio horien diru sarrerak eta finantzaketa.

– Erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, 6. artikuluan barruko gastuetarako xedatutako baldintzak bete izana adierazten duena.

– Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako kanpoko gastua 15.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean aurkeztu ez bada).

– Halakorik izanez gero, jarduerak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak, alde aurretik aurkeztu ez direnak.

– Egindako gastuen ordainketaren justifikazioa, tipologiaren arabera.

a) Kanpoko gastuaren kasuan, fakturen ordainketa justifikatzeko, dagokion banku transferentzia edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duen beste agiriren bat erabiliko da, baldin eta pertsona ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa, ordaintzeko data eta kontzeptua zehazten badira.

b) Diruz lagundu eta ordaindutako digitalizazio jardueri lotutako barne gastuaren kasuan, nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izana eta ordutegi kostua justifikatu beharko dira, hauek erabiliz:

– Kasuan kasuko pertsonak eta jarduketaren arduradunak sinatutako ordutegi parteak, egotzitako orduak egiaztatzen dituztenak.

– Urteko lanaldia, aplikatuko den lan hitzarmen kolektiboarekin bat etorritz.

– Dagozkion nominak eta bankuko laburpenak edo transferentzia telematikoen aginduak. Nominak sortaka ordaintzen badira eta banku laburpenean langilearen izena zehazten ez bada, erakundeko gerentziaren idazki bat erantsi beharko da, langile horren nominaren ordainketa dagokion sortaren barruan egin dela adierazteko.

– Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) (lehen TC1), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua, eta ordainketaren banku laburpena.

– Langileen izenen zerrenda (RNT) (lehenago TC2), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua.

13.4. Azkenik, hala badagokio, hirugarren ordainketa egingo da (gainerako ehuneko 10a), eta justifikatutzat joko da dirulaguntza. Horretarako, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatzen diren dirulaguntzaren gainerako justifikazio agiriak aurkeztea, egoitza elektronikoaren bidez, 2021eko maiatzaren 3an amaituko den epean.

13.5. Kanpoko profesionalak jaulkitako fakturen eta barruko gastuen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketaren betebeharra onartuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatu eta dagokion justifikazio txostena ematea, Arabatik kanpoko zerga helbideratzea duten kanpoko profesionalak egindako fakturen kasuan izan ezik. Kasu horretan, onuradunak frogatu beharko du atxikipenak ordaindu direla. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

13.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

13.7. Epe horiek igaro eta eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko gutzia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzaren arabera.

13.8. Ordainagiriak onetsitako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

13.9. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onestean bezala, 1.500,00 eurokoa da.

13.10. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Aldaketak onartu ahal izango dira, onartutako guttirako gastua muga delarik, hasiera batean diruz lagundutako jarduketetan eta horiei dagokien diru zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez izana gorabehera.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute.

Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak onetsi beharko ditu.

13.11. Justifikazio agiriak bide elektronikoen bitartez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://e-s.araba.eus>). Zehaztutako gain, erakundeak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, Arabako Foru Aldundiaren erakunde webean (<http://www.araba.eus/web/AyudasDesarrolloEconomico>) dagoen ereduari jarraituz. Hartan, adierazi beharko du espedienteari eransten dizkion fitxategiak jatorrizkoen benetako irudia direla, erakunde eskatzaileak dauzkala eta eskatzen zaizkionean Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela.

13.12. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak hamalagarren oinarrian ezarritakoa aplikatzeko izateaz gain, diruz lagundutako jardunek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein dela ere haien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenekin, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 80raino iritsi arte. Salbuespen izango dira Arabako Foru Aldundiaren beste administrazio unitate batzuek emandakoak, bateraezinak izango baitira.

15. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko.

16. artikulua. Deslokalizazioa

Dirulaguntzaren oinarri orokorrekin bat etorritik, deslokalizazioak laguntza itzuli behar izatea ekarriko du. Enpresa deslokalizaziotzat joko da bi egoera hauek batera gertatzea:

a) Dirulaguntza ordaindu eta ondorengo bost urteetan Araban enpresaren jarduera amaitu edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo arestiko egoeraren aurreko edo ondorengo bost urteen buruan, bere jarduerari utzi dion erakunde berak, edo talde berekoa den edo hari lotuta dagoen beste erakunde baten bitartez, beste toki batean jarduera bera garatzea.

17. artikulua. Baterako finantzaketa

17.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) ere finantzatzen ditu, ehuneko 50ean, 2014-2020 EHPOren esparruan.

17.2. Europar funts horri buruzko Europako araudia beteko dela bermatzeko, erakunde onuradunek gastuei loturiko egiaztagiriak gorde beharko dituzte, gutxienez 2030 arte.

17.3. Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikuluko 2. apartatuan jasotako eragiketa zerrendan sartu ahalko dira.

17.4. Erakunde onuradunek aparteko kontabilitatea edo kontabilitate kode egokia eduki beharko dute EGEFek kofinantzatutako eragiketekin lotura daukaten transakzio guztien inguruan.

18. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa eta EGEFek emandako aldi bereko finantzaketa aipatu beharko ditu zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan; horrela, bada, erakunde horiek irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituko dira.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.